



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 13 Urtea || 1931'ko Ilbeltza || 145 Zenbakia. || :—

— URTE BERI ON! —



Eskaya

efiz ere urteari asiera eman diogu.

Egunak joan eta egunak etorri, urte zafa osto zafaren antzean, gure bizia-
ren adafetik erori da...

Berekin deramazki gure biotzeko ain-
beste amets zuri gofiak...

Berekin gure lan eta izardiak...

Berekin gure biotzeko atsegin gozo-
nak eta gure begietako malko samiñe-
nak, egun garbi alai eta egun lañotsu
ilunak. Urte zafa, izenbat erakusten
dion gure biotzari!..

Orain bukatu dan urtea zer izan

da guretako? Urte ona edo urte galdua?

¿On asko egin dezu? ¿Burua argitu al dezu? ¿Zurto al zera? ¿Anima ere txu-
kundu al dezu? ¿Biotzari ere zuzenbidea ematen alegeña egin al dezu? ¿Jaungoi-
koagana urbildu egin al zera, edo Jaunagandik alde egin dezu?

¿Asmo edefak sortu al dira zure biotzean edo zure griña gaiztoen sukafak
liluraturik, kixkali zaituzte?

Nere Euskaldun maite eta biotzekoa: zugaitzak uda-berian osto beriz, lore
ugariz, eta emaitza edo frutu askoren pipitaz orniturik azaltzen dira. Baño ortara-

ko negu gogofean beren zañak lur bafenean bafenago sartzen eta luzatzen dituzte. an bizigafi befi ta ugariagoa bilatzeko.

Ona. Euskalduna, urte befi ontan zuk ere egin bear dezuna; zure bafuan sartu, Jaungoikoakiko ta erlijioakiko dauzketzun eginbidetan ondo jafi ta ortarako ikasbideak erakutsiko dizkitzun baten laguntza eskatu.

Ortarako eskeintzen zaizu ZERUKO ARGIA. Jaungoikoagana zeramez kien bidetarako laguntzale, argi emale ta bide ufatzale zuretzat eta zureantzat izateko. Ortarako Ilabeteoro bera zintzo irakufi. Ondo aztertu edo be.n eta befi ikusi bere ofialdeak.

¡Euskalefi fededun zoragafia! Jaunak eman dizun Sinismeneren doaia ez galdu. Sinismena bizirik gorde.

Gure Sinismen (fedek) etsai zital asko dauzka gaurkoan. Legorte gogofa dator urte befi onekin gure efiaren gañera. Sinismengabekeria biotz askotez jabetzen ari da, oitura txafen suak ateratzen duen ekeak, begiak itxiazten dizkieleko askori.

Urte zafarekin bijoaz gure arteko oitura zar galgafiak: eta urte befiarekin be-toz gure gain Jesukristoren oitura garbi befiak.

Ilabeteoro irakufi, ba, zure sinismena sendotzeko ta jakintsuego egiteko eskuratzen dizugun aldizkari au.

Sinismenaren etsai zitalak erne dabilta, gau ta egun atsedean gabe lanean Bear-beafezkoa zaigu, ba, fededunak ere guztiok alkar artzea. Etsaiak ez dute zer aurpegira botarik, sinismenaren ikasbidetan sendo dagoen kristauari.

Ortarako zure sinismena argituko duten ur garbietan maiz (safi) edan.

Oñela, urte befiak edergalu bikañak emango dizkitzu: zitu (fruta) atsegirgarriak ere bai zure fedek; eta zure biotza ta zure etxekoan onbideen zeruko lore bikañaz apaindurik gordeko dira, beste askorenak gaiztakerien aize kixka'garriek zimurtu ta igartuko dituen artean.

Urte iluna datorkigula dirudi; baño urterik txafenetan agertzen da obeki nor dan kementsu ta zufa.

Jesukristoren gurutzea daramagu buti afean: ofen argitasunak Euskalefiko zerua argituko digula, etsirik gaude.

Ortarako izango dira beintzat ZERUKO ARGIAREN lanak.

Geienean ezti-ezti erakutsiko degu egia. Baño etsaiak beartzen bagaitu, baita ere oja ateratu degu. Eta orduan, lotan daudenak esnatzeko, biotz aultxoak sendotzeko, otzak berotzeko, bidea galdututena bidera ots egiteko ta ekafiarazteko izango da.

Gozagafi da beti, gure biotzak Jaunaren edertasunaz beterik ikustea, pakez gañez egiñik ta Aren doiaz txukundurik agertzea.

Ondasun oiek guziak opa dizkitzu, Euskalefia, urte befi ontarako.

Z E R U K O A R G I A K



Belengo Argi-Lorea

(*Et ecce stella, quam viderant in oriente, antecedeat eos..*)

I

Belen-aldeko mendi-galurak,
ibai-ertzeko zugaitz-ezurak
estali ziran elurez...
Aize durunkor, zatilariak
oru zegiten, jorik eriak
izoztutako arnasez.

Ekaitzen mende aro dioa,
txabolatxoan arnas beroa,
ke mordo jostalaria...
Ordi motelak gosez oruka,
txabol-aurean jolas-ojuka
kapusai luzez artzaia.

Mendi-kolkoan argi goriak
txinpartaz ziran igotzen,
ta artzai-mutilen irintz luzea
aize zakarak zekarten.
.....Uso lumak lez elur-ostoak
ixil jarien odei-mordoak.....

II

¡¡ Artzai-mutilak, artzai-mutilak
gora jasorik zuen makilak
tontorik-tontor

al bezin pizkor
irintz alaiez Belen-aldera
«Argi-Lorea» begiztatzera!!
¡Euzki-aldeak argi jario!..
¡Izpi legunak galtzen zaizkiol!..
¡Oren txuria

euzki-aldia!..
¡Oraindik inoiz ez ikusia!..
¡Txingi politak laztan damaio!....

¡¡ Agur zeruko goibeltasuna!..
¡Agur bizitzen uztar astuna!..
¡¡ Urun bijoa

ekaitz-oroa
indar nastuen zurunbiñoa!!...
¡Ara biotzen azkatasuna!..
.....

¡Geldizetoren!.. ¡Dirdir zerion!....
 ¡Belen otzari lastan zemaion!...
 ¡Ale bikaiña!..

¡Lore urdiña!..

¡Txingi aratza!.. ¡Osto liraiña!..
 ¿Nolaz nik esan zer dagokion?..

¡Geldi zetoren!.. ¡Artzai-mutilak
 gora jasorik zuen makilak
 tontorik-tontor

al bezin pizkor
 irintz alaiez Belen-aldera
 «Argi-Lorea» begitatzera!!...

III

¡Zerbait nai zuen!.. Geldiro xamar
 zaldun-talde bat ondoren dakar!..
 ¡Zerbait nai zuen!..

¡Zerbait Belenen!..

¡Goitik begira zorotz zebilen
 jauregi, etxe, txabola ta abar!..

¡Zerbait nai zuen!.. Uri-burutik
 kiñuka zegon aspertu ezik!..

¡Zerbait nai zuen!.. Zertara dakar
 zaldun-taldea geldiro xamar?..

¡Ezin det asma!..

¡Befiz... darama!..

¡Zerbait nai zuen!.. ¿Mendi-bulaña?..

¿Nai ote zuen estalpe zaña?..

IV

¡Ixildu bitez itzak!.. ¡Mututu mingaiña!.. ¡Eri guziak emen ba lira!..
 ¡Inolazezin jardun!.. ¡Ez naiz, ai! ni diña!..

¡Lau orma baldar.... Elur-izara!..
 (Ene! au egi zorotza!..)

¡Ezin dezaket.... Ezin dezaket!

¡Miñez lotzen zait biotza!..

Estalpe baztefean... sendi bat zekusten!..

¡Idi eta astoak_arnasez berotzen!..

Aur txiki, eder, jayoberia
 (Auzpeztu nadin lenbailen!..
 lasto tartean erdi gordea
 goriak zegon ikusten!
 (Arzaze Jesus Ona,

Nere eskeintz xamufa.
 ezin dizut ukatu

Nik emen agurá.

¡Ume gaxoa!.. Lotan zematzen
 bere begitxo urdiñak.

Abo xabalik!.. Zango txikiak
 ařosa baten pinpiñak.

Auzpez daude zaldunak,
 auzpez Eřegiak;

eskeintzen dizkiote
 uręzko opariak.

Malko sendo, garatzak
 ixil darorzkie;

beren biotz-bařenak
 samurtu zaizkie.

¡Otoi luzea!.. ¡otoi beroa!..

¡Emendik ezin alendu!

¡Maitasunaren irudi bizi
 ziñez or dira biurtu!

¡Izar-Lorea goian begira!..

¡Oren garbia bere dirdiral!..

¡Iri par dagi

liřuragarı!..

¡Laztan damaio Aur txikiari!

¡Eri guziak emen ba lira!..

¡Belen-aldea, Belen-aldea
 Jesus Auraren txoko maitea!!
 ¡Gorenen zakust!

Abes dagizut!....

Biotz-bařendik zuri damaitzut
 esker onezko «Argi-Lorea»!!...

Loramendi
 (O. M. C.)



AZKEN IGURTZIA



Azken igurtzia anima ta gorputzen gozagafitako sortu zuan Jesukristok.

Al duenak artzea beaferkkoa da ezagueran sartutako kristau guzientzat.

¿Noiz artu bear da ordea?

Azken igurtziak bere izenaz bildurtzen ditu kristau asko. Uste bai dute, bera artuz gero naita-naiez il egin bear dala. Oker daude ordea ortan.

Sakramentu onek ez du inor iltzen. Ilko lirak askori, bai osteria bizia luzatzen. Beste gauzen artean, eginbide ori baidu berez sakramentu onek, laxter ikusiko dezuten bezala.

¿Noiz artu bear da, ba, azken-igurtzia? Gaxotasun (eritasun) aundiak menderatu gaituenean. Ez edozein gaxotasun aundi iltzeko afixku aunditxo askotan sortzen duela dakigun aietan.

¿Noiz artu liteke? Onelako gaxotasun batek jorik gaudela dakigunean. Baño onelako gaxotasunak jotzen gaituen bezin agudo bearturik al gaude artzera?—Ez. Gaxotasun ortan onera beafean, makuera ematen degula ikustean, sendalariaren begira egon gabe artu diteke; ta artu bear ere bai, ark edo Apaizak esanes gero, edo baita beste edozeñek txar jartzen ari gerala ezagutuz gero.

«Gaxoari Azken-igurtzia emateko ez da azkeneko asnasen begira egon bear. Ez baita ofek ematen dituen grazi ugarietatik artzen ezagunera osoan dagoanean baizik, eta Elizaren otoitzetara biotzez eta bafengo damutasun egiazkoarekin batuzen danean besterik.

Gorputzaren osasunari batez ere dagokionez, Sakramentuak ez du bate-re indafiz izango, ezeren itxaropenik (esperantzarik) ez dan arteraño ez bada artzen. Ez bai-dauka indar mirarilaria, baizik izatez gañeko indar berezi, gorputzeko indafak, gauza diranean, sendotzen dituen». (Moulin).

¿Azken-igurtzia zer da?

Gaxo lafientzako Sakramentua da au. Gotzaiak, (Obispo jaunak) bedein-katzen dute Ostegun Santu egunean ortarako olio. Ofekin Apaizak igurtzitzen du gaxoa (eria), bere zentzumenetan, pekaturako bide geiena ematen duten aietan; begietan, balafietan, sudufetan, agoan, esku eta oñetan.

Sakramentu au ematean Apaizak esaten du:

Igurtzialdi santu ontaz eta bere ufikaltasun biguñ-biguña, barkatu bekizkitzu zure... begiz... egindako pekatuak.

Apaiz-Aita edo bere ordezkoen eginbidea da Azken-igurtzia ematea.

Azken-igurtzi sakramentua ¿zeratarako da?

Azken-igurtzi Sakramentua iru gauzetarako da: Biziera gaiztoaren ondo-

rekoak garbitzeko; etsaia garaitzen laguntzeko; ta osásuna on ba-da emateko. (N. K. I.).

1.^a Bizitza gaiztoaren ondorekoak garbitzen ditu Sakramentu onek, gaxoak eragozpenik jartzen ezpa-du. Gaxoa pekatu aundian ba-lego ta ezin aitortu (konfesatu) balitz, baño biotz-damu egiazkoa ba leuka, gutxienez bildur-damu ona, bere pekatua barkatzen dio Sakramentu onek.

Baita ere pekatuengatik animak dauzkan eramanbeafak gutxitu egiten ditu, osotara barkatuko ezpa-dizkio ere.

2.^a Etsaiak bere ekinaldirik makufenak, azken aldi artan dakarzkio animari; ta aietan garai ateratzeko indar aundia ematen du sakramentu onek. Nekeak beronek gozatzen ditu, eramapen (pazientzia) ugaritzen du; Jaungoikoari nekeak eskeintzeko gogoa sortzen du ta irabazbide itzultzen ditu gaxoaren ezbeafak.

3.^a Gaxoari on ba-zaio, onetxek auferatzen dio osasuna. Onelaxe esaten zien Santiago Apostoluak lenengo kristauei:

«¿Zuen artean inor gaxo al dago? Elizeko Apaizak eraman bitza, eta otoitz egin dezatela bere gañean, olio z bera igurtziz Jaunaren izenean. Eta sinesmenazko otoitzak osasuna emango dio gaxoari ta Jaunak arinduko du; eta pekatuan ba-lego, barkatuko zaizkio». (Jac. V-14).

¿Nol artu bear da Azken-igurtzia?

Azken-igurtzia ondo artzeko, gaxoa Jaungoikoaren grazian egon bear du. Pekatuan ba-lego, aufetik aitortu egin bear da, al balitz beintzat. Ezin denean, damutasuna berenik egin dezala; au egiten lagundu bear zaie, ustekabeko gaxotasunak afapatu dituenai batez ere. Damutasun ori gabe, pekatu aundian dagoanari ez dakarkio sakramentu onek ezeren onik.

Sakramentu au artzeko, gogoa izan bear du, onek bere ondasunak eman-go badizkio kristauari.

Azken-igurtzia artzeko, ez egon azken asnaseai begira. Orduan artzen dan Sakramentuak, askotan gaxoa ilik afapatuko du; ta ala ez danean ere gaxoak ez dezake Sakramentu ontatik artu bear luken ondasunaren laurdenik.

Intza'r Damaso A.



Alegi'ko Gurutz-bidea (Alegi-argazkia)

JAKINBEARAK

IX

Salosketa gebendua

Gauza bildurgafiak dira salosketa gebenduan (contrabando) dabiltzanai gertatzen zaizkiyenak.

Mila pesetako multa jafi dizutela kontrabandoan zenbilenean eta ea nor ordaindu bearako ote ditun? Nere ustez gauza argi-argia da zurea. ¿Noren izenean zabilta eginkizun ortan? ¿Zure izenean? ¿Ori al da zure bizimodua? Ordun zeofek ordaindu bear dezu multa ori.

Zure nagusiaren izenean ibiliko ba ziña, berak agindu ta, ordun berak ordaindu bear izango luke.

Ortako eskatzen diyozu zuk zure saria, contrabandoa eskatzen dizun bakoitzari.

Jakin zazu betiko, mutiña: *autsak ekariko dituzte loyak.*

Neskatheen ariskuak ta eriotza

¡Emakumia! ¿Ainbesterañokoa izan ote al da? Zure galderak otzikara ere ematen dit! *Arisku aundi batean bizi zerala, lagun gaixto batek zure garbitasuna kendu nai dizula eta bietatik bat: edo mutil ori il, edo zere burua leyotik botatzeko asmoa artu dezula.* Ori bildurgafia da, gazte, baño ez gero oraindik pakerik galdu; entzun zaidazu. Zere burua leyotik botatzea eriotza arkitzeagatik, ez da beñere zilegi, inork ez bai dezake bere burua ondatu: baño zere burua leyotik botako bazenu iges egi teagatik arisku ortan zaudenean, miñ aundiya edo iltzeko ariskua arkitu afen ez litzake pekatu izango.

Baño obeto egingo zendukena da olako okasiyo oyetan mutiña jo, astindu, baita iñ ere, nai badezu, zure garbitasuna gordetzeko; ori ez litzake pekatu izango. Jaungoikoari eskatu zayozu, ta berak argituko du noski zure burua, zer egin bear dezun obeto ikusteko ta berak lagunduko dizu, ainbesterañoko aundia dalako zure garbitasunaren maitetasuna.

¡¡Obe da bein gori, ezenez beti ori!!

Beldurazko damua edo atrizioa

Txikitatik ikasitako dotriña aztu ere egin dezu, nere mutil gazte ofek!

Beldurazko damuak edo atrizioak ez ditu pekatuak barkatzen Sakramenturik gabe, ortako maitetasunezko damua edo kontrizioa bear da: onek bai, barkatzen ditu.



Donostiar Gabriel A.

Ilabete onen amairugafen egunean Meza bat emango da ZERUKO ARGIAREN irakurle, ta ongiñe guztien alde, Antonio Santuaren al-darean.

O Salutaris Hostia

(XIII saec.)

(Donosti'ar J. And. A'k. ereskidetua)



OI OSTIAREN EZTIA

¡Oi Ostiaren ezia,
zeru idikitzaia!
Etsayak estu dabiltzkit,
Zabaldu zeru atia.

Oi Oostiaren gozoa,
Atseginetan ezia:
Aingerutxo bat egin ni,
Zeruko Ogi zuria.

Zure begira naukazu,
loriak intza bezala:

Jesus maitea, iguzu,
zureak izan gaitzala.

Agur, Maitetxo nerea,
Nere Jaun eta Jabea:
Nere biotza izan bedi
Bakar bakarrik zurea.

¡Oi ostiaren ezia!
¡Zeru idikitzaia!
Lari dabilkit gogoa,
¡Lagundu nere Jainkoa!

Begi-Beltx.



MISIOAK

Simón Barzalu

Filipinetatik

Beri pozgariak datorzkigu orain aldian Filipinetako gure misiotik. Lingayen'go Gotzaiak bere Eliz-Barutira deitu ditu gure Aitak, eta Intzar Joakin Aita bere Buru Manilan dagoanak, bi Aita bialdu zizkion azkeneko Dagonilanedo Agoztuan. Biramonian Gotzaiak idazten zion Aita Intzari: «Aita Buru guziz maitea: Zure esku-titza baño len iritxi dira Lourdes'ko Ama-Birjina-ren jargoi ortatik bialitako pakezko bi aingeru ok. Gure Aitaren PAX ET BONUM (PAKEA TA ZORIONA) Espoleto berri ontako bizi lagunei gatzigatzera datoz.

Bi Kaputxino auek onera iritxi dira, Abisinia'ko martire Agantan-jelo ta Kasiano bi zorionekoen antzean; aiek biak ere beti batera agiri dira Ordenako irudietan-eta.

Emen egongo dira nerekin, nere beartasun, Kaputxinoena baño ere goriagoan aspaldiko komentu txar, Lingayen'go Gotzaiaren Jauregia edo Egoitza deitzen duten ontan.

Gaur berean asi dira pangasinan izkuntza ikasten, Dominikar'en Kapelauarekin.

Kaputxinoekin ba-dakizu nola nagoan eta nola egon bear duten. Bart otoitz berezia egin nion Gure Aitari, bere bi seme eman dizkitelako, eskerak emanaz. Nik uste Prantzisko Santuak begi onez begitukodiela, bere bi seme ostatz dauden etxe ontakoai...

Jaungoikoak eta Gure Aitak ordaindu bekizute Eliz-Baruti oni egin diozun ontarte (mesede) au. Nere gogo on auek adierazi izkiotzua-
ren, Aita Probintziala G. A'ri.

Beorën ta Abateri maite guzi orën maitale sutsu

Zesar Maria

Lingayen'go Gotzaia.

Lingayengo Misiolariak, Legaria'r Zesareo ta Erasun'dar Pernando Aita dira. Lenengoak, ara iritxi biramonean, gaztigatzen zion beren Buru Aita Intza'ri:

Atzo amabiak laurden gutxietan Lingayen'era iritxi giñan oso ondo, Jaungoikoari eskerak. Eta Gotzaiak, besoak zabalik, artu genitun, bere ezañetatik iri-para zerion eta bere soñean ezin izkutatu zuan bere poza, naiz uste etzuela gu iritxi. Berorën eskutitza gure ondorean iritxi bai zitzaion...

Atzo aratsalde berean bilatu genun pangasinan erakutsiko digun Irakaslea... Gaur bederatzietatik ameketara izan degu lendabiziko ikastaldia; ta egunero ordu berean gauza bera egingo degu. Gure asmoa goizetan era bat pangasinan, eta aratsaldetan era bat ingelesa ikastea da. Biartik Jaungoikoak onez, Erosarioa pangasinan'ez esaten asiko gera, baita meza ondoreko iru Agur Mariak ere. Ausartaentzat egin da bizia.

Azarorako geren parokiak artu bear ditugula, esan digu Gotzai Jaunak: eta auxa da gure asmoa ta Berorën gogoa ere bai noski...

Pernando Aita oso pozik dago eta ni bera baño ere geiago: eta biok Berori eskerak nola eman eztakigula gaude onen piku gozo, on, gorputz-animerako ezin onagoaz, eskerik biotzenezkoak emanaz.

Eskumunak orko gure Anai ain on oiei, ta Berorëk ar beza nere biotz-biotzezko muña; (barkatu ausardia) nere pozak esanazten dit-eta. Berorëna Jesu Kristo'gan

Legaria'ko Zesareo A.

I. O. Gotzai Jaunak Bugalön eta Salas eman nai dizkigu, beste Aita bat artzen ba-degu. Bialdu bezaigu Aita Perutxo bezin gogo oneko bat eta naikoa degu.

Lingayen, 1930'eko Agoñaren 9'an.

Intza'r Joakin A. G. A

Pilipiñetako AA. Kaputxinoen Buruari

Manila'ra

Aita Agurgari ta guztiz maitea:

Antonio Santuak ez dit beñere ustekabeko txarik eman, bere maitale sutsua izaten asi nintzen ezkerotzik beintzat. Nere etxe ontan eta Eliz Baruti ontan gertatu diran gauza on asko asteartean gertatu dira, ta Frantziskar mirarilari aundiari eskatu ondorean. Gaur asteartea da, ta beñere ezeztatu eztan Antonio Santuaren ontasunean nere ustea jarizik, idazten diot eskutitz au, Aita A.

Aitak, Aita Edralin asperkaitzak lagundurik eta tarantan eramanik, oraintxe itzuli dira, berak beren izardiz busti ta beren nekeakiñ landu bear dituzten lantegiko alderdiak ikustetik. Pozturik datoz ta al

balitz praintxe berean lanari ekiteko gogo biziz suturik. Beren biotze-ko su garëtan dauzkanak, ez die lekuri ematen luzaroago Nazaret'eko lantegi beartsu ontan egoteko; gogaldi-on utsezko bizitza oni emanik: Kristo Gure Jaunaren maitetasunak laxter ateraziko ditu burukarako zelaiera.

Beren ibilalditik pozik zetozen Beroren «baiezkoa» Zesareo Aitaren galdeari ikusi ustean, Bugaion'go paroki, Salasa'koaren amari dagokiona. Uste bai degu laxter ortan goraturik ikusiko degula Lourdes'ko Ama Birjiñaren erukitasunezko jarlekua.

Gaur berean egon da nerekin, Aitak atarian ziran artean, Bugaiongo Apaiz-aita. Oni adierazi diot beste Paroki batera aldatzen de-tala ta beronek esan dit, Lourdesko Ama Birginaren Eliza bere baitan izango duen parokirako aukeratuenak Aita Kaputxinoak dirala.

Ez al luke Berorëk Aita Zesareo pozez bete naiko, beste Aita lagun bat emanez? Nik uste, Aita, beren gogozko bizitzarako ere, beste anaitxo bat (ez mezagabea) on izango luketela, Labrador, Sual eta Bugaion Lourdes'ko Santa Maria Salasakoakin zaintzeko ta zuzentzeko.

Iru ba-lira batasun aundiagoa izango lukete; ta Aitak animen ardurazko lanetarako eratzasun geiago.


Antonio Santuak gogora dezaiola, Aita A. Aita Zesareonaren erantzupena. Nere eskea ez bai dator zikoizkeritik edo aundi-naietik, baizik maitetasunetik, uste det Paduako Gure Anaitxoak guziok pozik utziko gaituela.

Jesus eta Mariagan zure biotz-biotzezko maitale ta m. z.

Zesar Maria Guerrero,

Lingayen'go Gotzaia.

Asmakizuna



Ori auntz eder, ibilkari ta
Ori bei pare majoa—

¿Nun ote dabil oien zaitzale
eriko altsai zozoa?

Bera Biadasoatarak Mirarilariaren Eun urtean

Berako kristauak Domiño (medalla) Mirarilariaren urte betetzea guztiz ondo jaeztu dute.

Aizpa Efukitsuen otoitztegia Azaroaren 19'an asi zan bederatzi-ufena. Meza bitartean itzaldia egiten zan goizetik; afatsaldeko seieta bederatzi-ufen ikusgarfia eta bere ortan Iruñako A. Kaputxinoen Nagusi Autol'dar Ebanjelista A'k. egiten zuan itzaldia.

Ama Miraritsuari ainbesteko maitetasuna adierazten zayon otoitzegi ori, apainduri guziz jantzia zegoan. Nai-koa da esatea Aizpa Efukitsu, ongile aundiyak, jazten zutela. ¿Nork adieraziko du ogeita bigarreneko jai edera? Bederatziufena bukatzean Mirarilariaren irudia Efiko Elizara aldatzen zan: eta efi guzia antxe zan ari lagun egiten. Lourdesen iñoiz egon danak eta ango argizarien eliz-ingurua ikusi izan duanak, gogoratu lezake Bera-koa zer izan zan,

450 etxetan etxekal artzen dute Ama Miraritsua; egun artan auek guztiak antxe ziran Zeruko Eregiñari argi egiñez elizera bidean. Au jayik nagusienetan bezelaxe apaindurik zegoan eta Ama Miraritsuaren al-kartasuneko Andreak


Ama guztiz garbiaren aldarea ezin obeki jantzirik zeukaten. Aren afean efi guziak abestu zuan Salvea.

Ilaren 23'a, udabefiko, mayatz erdiko eguna bezin argitsu azaldu zan: goizeko seiatarako elizera bidean efiar sail aundiak zetozen; Jaun-artze ikusgarfia izan zan; jegiaz biotza betetzen duala efi bat osoa Jaunaren afean be-
rau artzen ikusteak!



Elizetik Aterazten

Egun osoan Ama Birjiñari lagun egiten egon ziran txandaka. Afatsaldeko iruetan Efiko Elizak eziñ artu zituan an bildutakoak. Aldameneko efieta-tatik ere bildu baitziran Ama Mariaren maitaleak, Berataren Eun urteko jaia-ri gorabidea eman nabez. Eliz ingurua Ama Miraritsuaren estandarteak ide-kitzen zuan, Argaya, Lasarte eta Irazoki gazteak zeramaten ori; bi aingeru-txo txoragafiak zeramazkioten bere galartzuak. Miraritsuaren irudia befiz ezin geyago dotore, gazte argi, beren sorbaldetan nork eraman ibilitakoak, jaso zuten: aingerutxo sail, beren egal zuriaz Muriñoren irudien batetik iges egi-ñak ziruditeriak, lorez inguratzen zuten Mirarilaria. Apaizteria, Efiko Aginta-



Mirarilaria erien barna

ri eta Soldaduenak, mugazaiñ sail bat irudiaren atzetik, ufena Miraritsuaren Lagunarteko Andre Batzafekoak; Aizpa Efukitsuen etxeko Ikasleak; efiko soñulariak eta efi guzia abesten edo kantari. Eliz ingurua Altzateraño iritxi zan. Kale au guzia ostasokaz eta pitxi ugariz jantzia zegoan; gure Ama ta Efegiña irixteako su-ziriak punpataka ongi etofia ematen zioten, etxe guziak befiz leiotako oialaz jantzirik zeuden.

Eliz-ingurua bukatzean, Efiko Eliza bete beterik; jikusteko edefa zen uraxe! A. izlaria pulpitura igo zan eta itz afigafi ta sutzuaz Beratar guzien biotzak Ama guziz garbiari eskeñi zizkion. Ondorean Ama Birjiña, Aizpa Efukitsuen otoitztegiara itzuli zuten, adefeko egunian bazelaxe; antxe jafaitu zitzaion bederatziaufenari biotz sutsuz, efitar ugari biltzen zala.

Domiño Miraritsuaren Alkartasun Batzafak Lafatxe'tar Ignazia Andre argia dauka burutzat: beronek eta Batzafak A. Autol Agurgafiari zorionak eman zizkioten bere itzaldiaz: bai ta ere Agintariei beren laguntzaz, efiko Apaiz Aita Elortza'tar Frantzisko J. ri ainbesteko maitetasunaz joan zalako elizkizun guzietara, eta batez ere Aizpa Efukitsuen eta Adefgi'tar Isidro beren Kapelau J. ri, Eun urte betetze onen goratzale azkafenak izan diralako.

M.^a Dolores.

Nere atsegiñ zuek

Eguna argi dijoa eta eguzkiak alaitzen du gure efia.

Bi lagun dijoaz bidean, Ama Semeak, ta biok naigabez beterik Betanitik bota dituztelako. Biek itz egin naiez, bañan beren begietako malkoak agertzeko bildur.

Semeak zerbait ikusi du eta bere aurpegia alaitzen da: bañe gozo-gozo bat bere Amari egin, ezti-ezti begiratu eta alai ta ariñ bidea artzen du. ¿Zer ikusi ote du ain alai jartzeko?

Etxe zuri bat eta etxe artan umetxoak, eta zuzen bertara dijoa.

Atea jo bazain laster, zabaltzen da.

Danak berari begira. Sartzen da bafura eta mutil koxkor batek galdezten dio: «¿Nundik ator?» Eta aurtxoak eztiro eztiro esaten dio: «Zerutik». —¿Zure izena zein?—Galdetu zuen biotzari. —¿Zerk ekartzen zaitu onera?—Goseak...—Gaixoa! Ofen edera eta zoragafia zera, ¿eta goseak zu? Laztana, neska liraintxo batek esaten dio: ¿Zein zera zu?—Ni? Asmatu zuek. —¿Gure eskolako aingeru zerutik jetxitakoren bat al zera?—Ez.—Tarsizio Santua?—Ezta.—Esan iguzu bada nor zeran zu.—Ni naiz... ¿Ez al nauzue ezagutzen? Txikitxoak erdian artu dute: eta itsas aize eta uretxindofaren abestia baño ots ezti gozoagoaz, itz egiten die.

Bere Amaz oroitu eta zeñen eder eta maitagafia dan adierazten die. Zeru aldera begiak goratu ta, an utzi dituan edertasunak agertzen dizkie. Liluraturik ainbeste mutil eta neskatoekin, saietseko zauria erakusten die, bai ta Biotza ere, eta usai gozoz betetzen da eskola. Aurtxoak begiraten dute biotzeko loregia eta an, liliak, eta afosak, baztar guztiak usaez betetzen dituzten loreak... Eta aren garbitasuna, eta apaltasuna eta maitetasuna, ¡aiek lorean edera! Jesusen itzak txorixoen donio txoragafiak baño eztiago ematen dute aien belafietan.

Zeruko txuri urdin txoragafia ikusi eta Jesusengana itzultzen dira auren begiak, eta ikusten dute zerua baño garbiagoa, zuriagoa, zoragafiagoa dala. Eta entzuten da zerutik ots au: «Zu bakarik zera ona: Zu bakarik edera. Zu bakarik maitagafia». Aurtxoak afiturik gelditzen dira.

Jesusek ifi-par gozua zeriola bere esku zuriak buru txiki aien gañean jafi eta besarkatu zituan.

¿Nor naizen? Ni naiz Jesus Biotz maitagafi, gurutzean josirik zuen onez il nintzana. Begira nere oiñ eskuak zer zuloak dauzkaten. Baña ¿zer? ¿Negafez asten zerate, nere politak? ¿Ilundu da zuen biotza? Etofi guztiok nigana. Ta artzen ditu batzuek magalean, besteak bere oñetan jartzen dira, eta esaten die: «Zuen maitetasunak gozatzen du nere Biotza. Maite ezazute bai Biotz biguñ au, eta arinduko diazue gizonen esker gaiztoak ematen daten miña. —¿Gizonak naigabetzen al zaitue? ekin dio mutiltxo batek.—Bai, laztana—Eta ¿oraindik maite dituzu?—Baita: nere Biotza ortarako egiña da.

Bañan beren biotzetatik bota naute eta zuen biotzetatik ere botarazi nai naute: eta nere ordeaz beste efege bat, nere etsaia, beren eta zuen biotzen jabe egin nai dute. Nere Ama ere ez dute maite.

Eta negafari eman zion Jesusek: aurtxoak biotzak eskeñiaz Jesusi:—Ez negafik egin, esan zioten: Ona emen gureak. Ona zu maitatuko zaitugunak. Zu izango zera beti gure biotzeko eta gure Eskolako Efege. Sartu gaitzatzu zure Biotz bañuan eta gorde ortxe betiko.

Jesus atsegiñaz beterik gelditzen da... Ama ere eskola atarian agertzen da eta Jesus bere besoetara dijoa, esanaz: Ama, aur txiki auek maitatu, nik maite ditudan bezela. Eta Amak: «Atoz, atoz; nere zerua, nere alaitasua, nere maitea zu zera»...

Afiturik daude artxoak bie begira. Amatxo, esaten dio Aurtxoak, ate au berealaxen idiki zait eta emen Efege naiz. Bildots zuri apalak: nere Biotzari atsegiña zuek emango diozue, eta zuek gozatuko dituzue nere zauriak.

San Migel bas-elizako ezkil soñu oxenak ernatu dute Altzutako auzoguztia, eta ziririkoen (cohetien) tunpadak alaitu ere efiā.

Nik ere, ufuti bizi afen, entzun ditut eta poz-pozik nago.

Goretsi dituzute Jesus eta Mariaren irudiak ango bi Eskoletan. Zeanuri dana pozik egon diteke: antxe daude Ama eta Semea aurtxoan garbitasunezko liliāz inguraturik...

Zorion biotzekoa ango irakasle bieri: Gaugoitia'tar Teresari ta Goitiso-lo'tar Andoneri. Aufera bide ortatik.

Bi urte auetan Bizkaian eskola asko dira Jesusen Biotzari Efegetza eman diotenak. Erakusleak: erakuskizun ofi jafai, bai dakizue berak bakafik osasuna eman dezaiokeela gure biotzari...

Matxin.

SEASKA ALBOAN

(ABESTIA)

Lo egin zazu, nere potxolo, lo egin zazu, lo, lo, lo.	Zure gorputza lirain liraiña, loretxuaren usaña.	elur maluta txuriak.	Lo egin zazu, nere potxolo, lo egin zazu, lo, lo, lo.
.....	Zure begiak dir-dirdariak, izar zerutik jetxiak.	Zure ezpaintxoak txingar goriak, mañubia lez goriak.	Aminatxua, amin gaxua, zuri begira gozaro.
Aminatxua, emiñ gaixua, zuri begira gozaro.	Zure arpegiko masail goriak, goiz garbiari osturikako argiak.	Zure iliak, ile uriak, eguzkiaren izpiak.	T'ainerutxo bat seaska alboan, maitetxo, zure zai dago.
Aingerutxua seaska alboan ego zabalik zai dago.	Ortza txikiak berdin sariak,	Ene maitia, ene pitxia, ene Jaunaren grazia.	Lo egin zazu, lo, lo, lo.
Lo egin zazu, lo, lo, lo.			

BORDARI. (imatx'tar E.)

Ikasi...! Ikasi...!



I—Anton Potolo oñazez dago,
goñiak dabil ikusten:
agintxo batek bere agoan
pakerik ez du ematen.




II—Masail galanta ipiñi dio
zorioneko 'agiñak:
«Ba zakiat nik, zer egin eta
orain ikusiko diat».



III—Sedazko ariz lotua dauka
Anton Potolok agiña:
jagiñ txar onek, añanopola,
ematen diran su-miña...



IV—Lotu bear det eskopetaren
puntako burni txulora:
oraikoan, bai, oñaze gabe
aterako da kanpora...



V—Esan ta egin: tiro bizkoñak
ateratzen du soñua:

«Gizon zintzoa ba zera beintzat,

t'agiñik gabe gelditutzen da
Anton Potolo gaizua.

Ez izan iñoiñ astua!

A R A Y O T Z T A R A

Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan Iruña'n